

2020ko Hego Euskal Herriko lan istripuen txostena

ELA-LAB-ESK-STEILAS-EHNE-HIRU



**Pandemiaren ondorioz jarduera ekonomikoa eten izanak ez du geldiarazi
2020ko lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen kopurua**

70 HERIOTZA LANEAN

LAN-ISTRIPUAK HEGO EUSKAL HERRIAN

2020ko martxoan, COVID-19ak eragindako pandemiak baldintzatu zituen gure bizitzak, gu guz-tion oinarrizko alderdi asko eta asko geldiaraziz eta mugatuz, adibidez, etxeko bizitza, lan arloa, pertsonen arteko harremana zein kaleko bizitza. Hilabete luzez funtsekoak ez ziren jarduerak ga-larazi ziren. Geroago, gobernuek ezarri zituzten neurriek mugikortasuna eta jarduerak mugatu dituzte, covid 19az kutsatzeko arriskua urritzeko helburuan.

Begi-bistakoa da mugatze hauek lan esparruari, enpresei nahiz langileei oso ondorio kaltegarriak ekarri dizkietela. Honen ondorioz lantokiak itxi dira, enplegua erregulatzeko espedienteak eta aldi baterako enplegu erregulazioak bideratu dituzte eta langileak bota dituzte lanetik.

Hala ere, lan-jardueraren geldialdi edo murrizketa horiek gorabehera, lan-istripuen tasa ez du neurri berean behera egin 2020an. Salatu behar dugu Hego Euskal Herriko laneko istripu eta gaixotasunei buruzko datuek, hobera egin beharrean, okerrera egin dutela, covid egoera kontuan hartuta sinestezina dirudien arren.

Administrazio publikoek emandako azken datu ofizialen arabera, 2019ko datuekin alderatuta, %19,1 jaitsi da lan-istripuen tasa EAEn eta %20,6 Nafarroan (irailera arteko datuak). Aurreko urtearekin alderatuta, 2020an areagotu diren istripu bakarrak Bizkaiko istripu hilgarriak (bi gehiago) eta "in-itinere" istripu hilgarriak izan dira (%50ean areagotu dira). Hala ere, euskal gehiengo sindikalak erregistratutako datuek argi eta garbi erakusten dute laneko istripuek okerrera egin dutela 2020an, eta 2019ko datuekin alderatuta, lan-istripuek eragindako hildakoen kopuruak gora egin duela, nahiz eta jarduera gelditu zen, eta horren ondorioz krisialdi ekonomikoan murgildu garen, jarraian zehaztuko dugun moduan.

Coronavirusak eragindako egoera honetan ekonomia-jarduerak gelditu izanak ekarri du, Hego Euskal Herrian, 2020. urtean, EAEn langabezia-tasa %9,96 batekin itxi izana eta %11,65arekin Nafarroan (INEn datuak). Datu hauei gehitu behar diegu 2020. urtean zehar milaka langilek iraun behar izan dutela aldi baterako enplegua arautzeko espedientean zein enplegua erregulatzeke espedientetan (EEE). EAEn, Lan Harremanetarako Kontseiluaren arabera, 218.991 egon dira egoera honetan, eta Nafarroan, apirila eta Abendua bitartean, 34.439.

Hego Euskal Herriko gaixotasun profesionalei dagokienez, gutxienez 28 pertsona hil dira amianto-zuntzekiko esposizioarekin lotutako patologiarekin, baina erregistro ofizialek oraindik ez dute adierazten laneko jatorria duten gaixotasunak behar adina aitortu ez izanak eragin duen arazo larria. Halaber, ez dakigu zenbat langile hil diren pandemia hasi zenetik, coronavirusa bere lanpostuan hartzeatik.

Jarraian azalduko ditugun datuen larritasuna kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen barruan prebentziora bideratutako baliabideek irriarriak izaten jarraitzen dute, datuen gordintasuna kontuan hartuta.

EAE-KO DATU OFIZIALAK (iturria Osalan)

2020an, EAEn, guztira, 67.737 lan-istripu, 66.406 istripu berri eta 1.331 berriz gaixotze zenbatu dira. Istripu horietatik, 31.533 baja bideratu dira, guztizkoaren %46,5 alegia; aurreko urtean baino %19,1 gutxiago. Baja gabeko lan-istripuei dagokienez, hauek 36.204 izan dira, istripu guztien %53,4, eta 2019an baino %21,5 gutxiago.

Baja eragin duten lan-istripu guztietatik, "in-itinere" istripuak barne, 29.979 istripu arinak izan dira, %95a; 196 larritzat izendatu dituzte, eta 27 hilgarriak. 2019ko datuekin alderatuta, istripu arinak %18,7an murriztu dira. Istripu larriak %4,3an igo dira eta hilgarriak, berriz, %10. Nabarmenezkoa da lanean gertatu diren istripu larrien gorakada, baita "in-itinere" jazo diren laneko istripu hilgarrien igoera ere, 2019ko datuekin alderatuta, %50 igo baitira.

Lurraldean arabera, Araban 4.734 lan-istripu erregistratu dira, in-itinere istripuak barne, Bizkaian 13.652 eta Gipuzkoan 8.593. Hiru lurraldeetan, datu globalek behera egin dute aurreko urtearekin alderatuta, eta jaitsiera handiagoa izan dute istripu arinen kopuruaren eraginez, istripu guztien %95a izan baitira.

Oro har, 2020. urtean in-itinere jazo ziren istripuak %21ean urritu ziren, hala ere, %50ean handitu ziren in-itinere jazo ziren istripu hilgarriak.

Lan-istripuen intzidentzia-indizeak (1.000 langileko gertatu diren lan istripu-kopurua) txikitu egin dira hiru lurraldeetan eta sektore guztietan, bai gizon bai emakumeen artean; oro har, 2019. urtearekin alderatuta, %16,8 urritu da.

Laneko gaixotasunei dagokienez, EAEn, 2390 laneko gaixotasun jakinarazi ziren 2020an, aurreko urtearekin alderatuta, %24,2 gutxiago. Baja eragindako zein baxarik gabeko laneko gaixotasunak %18 eta %29,9 urritu dira hurrenez hurren. 2020. urtean mutualitateek laneko gaixotasunei loturiko 100 kasuko 51 baja onartu zituzten.

Lan istripuak	2020	2019
Araba		
arinak	5.310	6.904
larriak	38	36
hilgarriak	5	7
guztira	5.353	6.947
Bizkaia		
arinak	15.126	18.755
larriak	107	100
hilgarriak	16	13
guztira	15.249	18.868
Gipuzkoa		
arinak	9.543	11.211
larriak	51	70
hilgarriak	6	10
guztira	9.600	11.291
Lan gaixotasunak	2.390	3.152

NAFARROAKO DATU OFIZIALAK (iturria: NOPLOI; irailera arte

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak, 2020an, ez du dagokion txostena egin, aurreko urteetan bezala; beraz, datuak ez dira ofizialak.

Urtarriletik irailera arte, 15.729 lan-istripu, 15.403 istripu berri eta 326 berriz gaixotze, zenbaitu dituzte ofizialki. Istripu berrietatik 7.315k baja eragin dute eta 8.088 baja gabekoak izan dira (%52,5). Istripu arinak 15.334 izan dira (%99,5), larriak 71 eta hilgarriak 11. Aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, %21,7 murriztu da lan-istripuen guztizko kopurua. Baja eragin duten istripu arinen kopuruak %20,2 egin du behera, eta baja eragin duten istripu larrien kopuruak ere %23,5 egin du behera. Bien bitartean, istripu hilgarrien kopurua bitan urritu da.

Istripu hilgarriak azaltzen dituzten kausa-faktoreen %63 lana antolatzeko faktoreei (lan-karga, eritimoak, parte-hartzea, autonomia, konpentsazioak) eta %54,6 prebentzioaren kudeaketari lotzen zaizkie.

Aurreko urteko aldi berarekin alderatuta intzidentzia indizea %5,5 urritu bada ere, oraindik izugarri handia da (32,6 lan istripu 1.000 langileko).

Gaixotasun profesionaleri dagokienez, urtarriletik abendura arte 1.217 lan-gaixotasun jakinarazi dira Nafarroan, hau da, 2019ko datuekin alderatuta, %33,2 gutxiago, eta baja-agiriekin (%24,1) eta baja gabeko (%28,9) kopuruak behera egin dute. (Iturria: CEPROSS) 2020an, mutualitateek 46 baja eman zituzten laneko gaixotasunen 100 kasuko.

Laburbilduz

Datu ofizialek erakusten dute, bai EAEn bai Nafarroan, 2020an, aurreko urtearekin alderatuta, lan istripuei buruzko datuek behera egin dutela; dena den, ezin da alboratu pairatu dugun eta nozitzen ari garen egungo egoera, krisi sanitarioak eragindako krisialdi ekonomikoa, non lan-istripuen jaitsiera horrek lotura estua duen jarduera ekonomikoaren geldialdiarekin eta langileen arrisku desberdinekiko esposizioaren beherakadarekin.

Ekonomia-jarduera geratu izana eta pandemiak geroztik eragin duen krisialdi ekonomikoa dira 2020. urtean laneko ezbehar kopurua erregistro ofizialetan urritu izanaren zergatiak EAEn nahiz Nafarroan. Hala eta guztiz ere, deigarria deritzagu lan-istripuen arloan izan den beherakada txikia, lehenik eta behin, kontuan hartzen baditugu martxoan funtsezkoa ez zen jarduera oro debekatu zelako, eta ondoren, oro har jarduera ekonomikoa moteldu duten mugak eta murrizketak ezarri zirelako.

EAEn gora egin duten datu bakarrak lanaldiko istripu larriak izan dira; in-tinere istripu hilgarrien gorakada ere nabarmena izan da, %50 igo baitira, 2019ko datuekin alderatuta. Nafarroan, jaitsi egin dira istripu arinak, larriak eta hilgarriak.

EAEko lan-istripuen intzidentzia-tasek (lan-istripuen kopurua 1.000 langileko) behera egin dute hiru lurraldeetan, bai gizonen artean, bai emakumeen artean, eta sektore guztietan. Nafarroan ere behera egin dute intzidentzia-indizeek. Berriz ere nabarmendu behar dugu beherakada hori jarduera ekonomikoa gelditzearen eta covid pandemiak eragindako ondorengo krisiaren ondorio zuzena dela.

Laneko gaixotasunek ere behera egin dute 2019ko datuekin alderatuta, bai EAEn, bai Nafarroan.

Berriz ere salatzen dugu enpresek, mutualitateek eta Gizarte Segurantzak laneko patologia gu-txi aitortzen dituztela, mutua patronalen postulatuena jarraipena egiten baitu azken honek ere. Horrek berekin dakar, alde batetik, laneko istripuei buruzko benetako estatistika ofizialik ez ego-tea; izan ere, istripu asko ez dira lan-istripu gisa hartzen, edo arintzat jotzen dira, eta, batez ere, lan-jatorriko gaixotasun asko osasun-zerbitzu publikora bideratzen dituzte mutuek, argudiatuz jatorriak ez duela zerikusirik lanpostuarekin, eta, bestetik, gaixorik dauden langileak aitortpen-fal-ta hori judizializatzerara behartzen ditu, prozesu judizial luze eta zailei aurre egitera behartuz.

Mutuek lan-jatorriko patologiak ez aitortzeak mesede egiten dio berriro patronalari, eta jardunbi-de hori oso erabilia izaten jarraitzen du, langileak osasun-egoera txarrean lanera joatera edo osasun-sistema publikora joatera behartzen baititu, gastua azken horretara bideratuz. Gainera, egiaztatzen ari gara Gizarte Segurantzak berretsi egiten dituela mutualitateen jardunbide txarrak eta babes barik uzten ditu langileak.

Azken 5 urteetan, EAEn eta Nafarroan izandako laneko istripu hilgarrien eta gaixotasun profesio-nalen laburpen estatistikoa:

	2016		2017		2018		2019		2020	
Estatistika ofizialak	EAE	Nafarroa	EAE	Nafarroa	EAE	Nafarroa	EAE	Nafarroa	EAE	Nafarroa
Lan istripu hilgarriak	40	9	32	11	37	10	28	13	27	11
Lan gaixotasunak	2471	1580	3101	1420	3278	1557	2931	1375	2390	1217

(iturria: Osalan eta ISPLN)

Gehiengo sindikalaren datuak:

2020an, gehiengo sindikalak gutxienez 70 lan-istripu hilgarri zenbatu ditu Hego Euskal Herrian, 59 EAEn eta 11 Nafarroan. Ezin dugu ahaztu Joaquin Beltran langilea desagertuta jarraitzen duela 2020ko otsailaren 6tik Zaldibarko zabortegean, urtebete geroago.

Istripu hauetatik 24 Bizkaian gertatu dira, 17 Gipuzkoan, 18 Araban eta 11 Nafarroan. 2019ko da-tuekin alderatuta, EAEko lurralde guztietan igo da hildakoen kopurua, eta bereziki Araban izan da gorakadarik handiena, 12 hildako gehiago izan baitira. Gipuzkoan eta Bizkaian 8 lan-istripu gehia-go erregistratu dira, hurrenez hurren, aurreko urtean baino.

Nafarroak lau hildako gutxiago zenbatu ditu, 2019an hildako gutxiago izan dituen lurralde bakarra izan da Nafarroa.

Lan istripu hilgarriak	2020	2019	2018	2017	2016
ARABA	18	6	6	5	3
GIPUZKOA	17	9	10	16	8
BIZKAIA	24	16	30	20	29
NAFARROA	11	15	21	14	13
GUZTIRA	70	67	55	55	53

Istripu hilgarrietan xehetasun handiagoz begiratzuz,

- % 25ak istripu hilgarri ez-traumatikoak izan dira
- % 14ak altueran eroritako istripu hilgarriak izan dira.
- % 17ak in-itinere istripu hilgarriak izan dira.
- % 22ak harrapatzeak edo kolpeak eragindako istripu hilgarriak izan dira.
- Istripua hilgarria izan zutenen % 15 ek azpikontratatuak ziren.
- Industriaren sektorea izan da lan-istripu hilgarri gehien izan dituen, guztizkoaren % 30ekin; ondoren, zerbitzuen sektorea dator, hildakoen % 18arekin.
- 4 nekazari, basogintzako 2 langile, arrantzale bat, eraikuntzako 7 langile eta 12 garraiolari hil dira lan istripuetan.

Datuen irakurketa

1.- Lan-istripu globalei dagokienez, iturri ofizialen arabera jeitsiera, jardura ekonomikoaren etetearen eta Covid pandemiaren ondoriozko krisi ekonomikoaren ondorio zuzena da. Hala ere, jardura ekonomikoa geldiarazteak ekarri duena kontuan hartuta, ezbehar-kopuruen datuak guztiz onartezinak dira, ez baitira jardura ekonomikoarekin batera neurri berean murriztu.

Azpimarratu behar dugu beherakada handiena istripu arinetan gertatu dela, istripu larriek berriz, gora egin dutela Araban eta Bizkaian. Istripu hilgarriei dagokienez, 2 istripu gehiago izan dira Bizkaian, eta gainerako lurraldeetan, berriz, behera egin dute. Hala ere, in-itinere istripu hilgarriak % 50 igo dira aurreko urtearekin alderatuta. Azken horiek prekaritatearen aurpegirik bortitzena erakusten digute. Hala ere, salatu beharra dago HEHko laneko osasunaren eta prebentzioaren egoerak ez duela hobera egiten lantokietan. Arrazoi nagusiena, lan-prekaritateak enpleguaren kalitate txarra eragiten duela da. Prekaritatea ezarrita dago enpresetan, azpikontratazio gisa, lan-erritmo handietan, baliabide tekniko eta giza baliabideetan inbertsio gabezia edo informazio eta prestakuntza gabezia, eta hori da laneko istripuen eta gaixotasunen atzean dagoen arrazoi nagusia.

2.- Oraindik ere EAEn eta Nafarroan gertatzen diren laneko istripu eta gaixotasun profesional asko estatistika ofizialetan erregistratu gabe jarraitzen dute. Istripu hilgarrien kasuan 2020an, % 54ko azpi-erregistroa dago gehiengo sindikalaren datuen eta erregistro ofizialen artean, eta horrek esan nahi du 32 istripu hilgarri ez direla halakotzat hartu. Pentsatzekoa da istripu larrien eta arinen kasuan ere antzeko azpi-erregistro bat egongo dela, eta, beraz, lan-istripu asko ez direla

estatistika ofizialetan agertzen. Lan-istripuak lesioaren larritasunaren arabera aztertu ohi dira, nahiz eta ez dagoen horri buruzko definiziorik, ez legezkorik, ez teknikorik. Kalifikazioa enpresen eta mutualitateen esku geratzen da, hala, istripuen% 99 arintzat jotzen dira eta% 53,4 EAEn eta %52,5 Nafarroan baja gabeko istripuztat jotzen dira. Horri buruzko azterlan urrien arabera, istripu larrien maiztasuna 3,5 eta 15 aldiz artean azpideklaritzen da.

Iturri ofizialetako datuen eta gehiengo sindikalaren (G.S) datuen konparaketa, lan-istripu hilgarriei dagokienez :

	2020		2019	
	G.S	Iturri ofizialak	G.S.	Iturri ofiz.
ARABA	18	5	6	6
GIPUZKOA	17	6	9	10
BIZKAIA	24	16	16	12
NAFARROA	11	11	15	13
GUZTIRA	70	38	46	28

Gaixotasun profesionalen azpi-erregistroa ohikoa da, eta haren aitortpen eskasa salatzen jarraitu behar dugu. Ezkutatzek zerikusia handia du baja horien ondoriozko planteamendu ekonomikoekin; izan ere, gaixotasun bat profesionala izan edo ez izan mutualitateek edo osasun-sistema publikoak hartzen du bere gain. Mutuek laneko patologien jatorria ukatzen badute eta gaixotasun arrunt gisa osasun-sistema publikora bideratzen badituzte, guztion artean ordaintzen ditugu lanpostuan sortutako kalte guztiak, eta errentagarritasun ekonomikoa nagusitzen da langileen osasunaren gainera.

Datu ofizialekin soilik, 185 pertsonak jasaten dute lan-istripu bat EAEn egunero, eta Nafarroan 57 pertsonak. Datuak oso altuak izan arren, oso urrun daude errealitatetik; izan ere, lehen aipatu dugun bezala, asko ez dira erregistratzen (istripu arinak, in-itinere, etxeko langileen istripuak, etab.), eta beste batzuk enpresek beraiek zuzenean edo mutualitateen laguntzarekin, ezkutatu egiten dira, gizarte-segurantzara bideratuz, lanekoak ez diren istripu edo gaixotasun gisa erregistratzeko helburuarekin, agintariek gertatutakoa iker ez dezaten eta zigor ekonomikoak saihestu ditzaten.

Bizi dugun krisi ekonomikoak eragin zuzena du gure osasunean, areagotu egin ditu ziurgabetasuna, ezegonkortasuna, langabezia, kaleratzeak, ERTEak, EREak enpresen itxierak, lan-baldintzen okerragotzea, soldaten murrizketa, lan-kargen bat-bateko aldaketak, eta abar. Eta horrek guztiak langileen osasuna kaltetzen du, estresa areagotzen du eta patologia sozial larriagoetara bideratzen ditu, hala nola infartuak, isuriak, depresioak etabar.

3.- Gasteizko eta Nafarroako gobernuek langileriaren segurtasuna eta osasunari garrantzi gutxi ematen diote eta ez dute gai hau dagokion seriotasunez hartzen. Lan osasun eta segurtasun politiken norabidea ez dute aldatu, eta dagoeneko frogatu da ez direla eraginkorrak izan eta ez direla nahikoak ezbeharren gaitz soziala ezabatzeko. Lan osasuneko gastu publikoa baxuegia izaten jarraitzen du, EAEko eta Nafarroako aurrekontu osoaren% 0,01 baino ez da bideratzen partida horretara.

4.- Lan Ikuskaritzaren, Osalanen eta Nafarroako Osasun Publiko eta Lan Osasunaren Institutuaren eta prebentzio-zerbitzu gehien erabateko absentzia salatzen dugu lantokietan pandemia honetan. Izan ere, prebentzio-arloko kontrolaren eta jarraipenaren arloan dagoen teknikari eta baliabide falta nabarmendu da, eta prebentzio-gaiak alde batera utzi behar izan dira Kovid ka-

suak arakatzeko. Laneko Ikuskatzaitza ia desagertu egin da lantokietatik, eta ezinezkoa izan da prebentzio-legeen ez-betetzeak kontrolatzea eta prebentzio arloko salaketak hilabeteetako atzerapenarekin erantzuten dira.

5.- Laneko minbizien kasuak, amianto edo silikosisa kasu, gero eta gehiago dira. Aurten gutxienez 28 pertsona hil dira amiantoaren ondorioz.

6.- Bestalde, ez dakigu zenbat langile hil eta kutsatu diren koronabirusaren ondorioz lantokietan baliabiderik ez izateagatik. Pandemiaren zehar ikusi dugu prebentzio-zerbitzuak desagertu egin direla enpresetatik prebentzio-beharrak premiazkoak ziren garaian, eta aholku higienikoak eta kontingentzia-plan estandarrak aurkeztu dituzte soilik.

7.- Azkenik, enpresa-mutualitateak izan dira pandemiaren aurkako aktibazioan egon ez direnak, ez prebentzioari dagokionez, ez administrazioari dagokionez, ezta asistentziari dagokionez ere. Covid-19ari lotutako baja-, berrespen- eta alta-partiak (gaixotasuna, isolamendua, sentsibilitate berezia) lehen mailako arretako medikuei eman zaizkie, azken hauek pandemiaren ondorioz lanez gainezka egonda oraindik ere lan gehiago bideratu zaie. Mutuak osasun-sistema publikoan integratzeko garaia da.

Langileria jasaten ari den azken urteotako lan eta gizarte eskubideen murrizketa larria langileen segurtasunaren eta osasunaren aurkako erasoaldia da eta krisi-testuinguru honetan larriagotzen ari da. Ez gaude prest murrizketa guzti hauek ekarri duen prekarietatea gure osasunarekin ordaintzeko. Bada garaia lan-osasuneko politikak errotik aldatzeko eta osasuna eta bizitza beste guztiaren aurretik jartzeko.

Egoeraren larritasuna ikusita, urtarrilaren 15ean EAEko eta Nafarroako gobernuei eskatu genizkien neurriak berresten ditugu:

- Enpresen gaineko kontrol handiagoa. Lantokietako osasun eta prebentzio neurrien jarraipen egokia egiteko, ezinbestekoa da Osalan/ISPLN eta Lan Ikuskaritzako langileak Europako batzuekin parekatzea. Praktikan, EAEn gutxienez 100 teknikari gehiago izango lirateke, eta beste 50 gehiago Nafarroan. Halaber, Nafarroako Gobernuak Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren arloko eskumenak berreskuratu behar ditu.
- Mutuak eta prebentzio-zerbitzuak publikatu behar ditugu. Pandemia honetan ez dira eraginkorrak izan osasunaren ikuspegitik.
- Altueran erortzeko arriskua duten enpresen eta harrapatzeko edo elementu kantzerigeno eta mutagenoekin lan egiteko arriskua duten jardueren kontrol eta jarraipen ekintza gehiago egitea eskatzen dugu, araudia betetzen dela egiaztatu dadin.
- Prebentzio-arloan zigorren bat jaso duten enprekin kontratatzeko debekua.
- EHko enpresa guztietan arrisku psikosozialen ebaluazioak egiteko eskaera, pandemiak langileen baldintza psikosozialak are gehiago larriagotu dituela kontuan hartuta. Horretarako, bi urteko epean, enpresa guztiek izan beharko dute gutxienez arrisku psikosozialen ebaluazio bat eta gabeziak daudenean neurriak ezarri beharko dituzte, eta Osalan/ISPLNko teknikariek egingo dute betetze-mailaren jarraipena.
- Enpresa guztietan, prebentzio-ordezkarien parte-hartzearekin, kontingentzia-plan bat izatea exigitzen dugu, prebentzio-neurri orokorrak eta norberak babesteko ekipo egokiak ezartzen dituen, sortzen diren aldaketekin alda daitezzen, baina betiere kobid-aren aurkako neurri egoikiak bermatuz lantokietan kutsatzeko probabilitatea minimizatzen.

ELA-LAB-ESK-STEILAS-EHNE-HIRU

